

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 22an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

19.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Herriko kirol elkarte eta taldeei emandako dirulaguntzaren 2022 zuriketa eta likidazioa onartzea.

Alkate-udalburuaren 2022ko abenduaren 21eko proposamenak dio:

Gaia: Herriko kirol elkarte eta taldeen 2022ko dirulaguntzaren zuriketa eta likidazioa onartzea.

2022ko abenduaren 14an egindako kirol batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, kirol teknikariak eta Batzordeko idazkariak (Oskar Carrascal Gonzalez jaunak), bere aktan jasotzen duenez:

“Herriko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntza 2022: zuriketa eta likidazioa

Joan den maiatzaren 27ko bilkuran onartu zuen Udal Tokiko Gobernu Batzordeak kirol elkarte eta taldeei zuzendutako 2022ko dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Dirulaguntzen onuradunen zerrenda onartzearekin bat, dirulaguntzen lehen zatia, ehuneko 60a, ordaintzea onartu zuen Tokiko Gobernu Batzordeak.

Bada, dirulaguntza-lerro bakoitzaren baitan esleitutako onuradun talde eta kirol elkarteek zuritu dute dirulaguntza, eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan jasotzen den dokumentazio eta ziurtagiriak eman dituzte eskatzaileek. Ondoren, elkarte eta talde eskatzaileek aurkeztu dituzte aurrekontuen likidazioak, eta Udal Kirol Batzordeak onartutako proposamenen berri ematen da:

Dirulaguntza-lerroa: Kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzak diruz laguntzeko

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA
1	Udana Automobilismo Kirol Taldea	Eskuderiako lizentziak
2	Antxintxiketan-Orientazio Eskola	Orokorra

1	Udana Automobilismo Kirol Taldea	Eskuderiako lizentziak
---	----------------------------------	------------------------

Elkarteak ez du dirulaguntza zuritzeko dokumentazio eta ziurtagirik aurkeztu, ondorioz, Udal Kirol Batzordeak proposatzen du:

- Dirulaguntza onartzearekin bat ordaindutako lehen zatia; 360 €, itzultzeko errekerimenduaren tramitea abiaraztea.

2	Antxintxiketan-Orientazio Eskola	Orokorra
---	----------------------------------	----------

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 2319.24 €
- Sarrerak: 2512 €
- Likidazioa: 192.76 €

Elkarteak, Udalak emandako dirulaguntzaren 1. zatia kontabilizatu du aurkeztutako diru-sarreretan. Horrela bada, eta aintzat harturik, batetik, elkarteak izandako likidazioa positiboa 192.76 €-koa izan dela, eta bestetik,

dirulaguntzaren bigarren zatia (%40) 240 €-koa dela, Udal Kirol Batzordeak 47,24 €-ko dirulaguntza ematea onartu dio kirol elkarteari.

Dirulaguntza-lerroa: Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeako diru-laguntzak

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA
1	Oñatiko Antxintxiketan Kirol Elkartea	San Silbestrea 2022
2	Aloñako Igoera Kultur eta Aisiladirako Elkartea	Aloña Igoera XVII
3	Herriko Pilota Txapelketa	Herriko Pilota Txapelketa
4	Herriko Futbol Txapelketa	Herriko Futbol Txapelketa
5	Oñatiko Mendi Martxa	Oñatiko Mendi Martxa
6	Txantxiku Arkulariak	Gipuzkoako 3D Liga 2
7	Txantxiku Arkulariak	XIV. San Miguel Saria+Liga 3
8	Udana Automobilismo Kirol Taldea	Errekalde - Goitiberak

1	Oñatiko Antxintxiketan Kirol Elkartea	San Silbestrea 2022
---	---------------------------------------	---------------------

Aurrekontuaren zuriketa:

Udal Kirol Batzordeak onartu du dirulaguntza likidazioaren gaineko erabakia atzeratzea,, izan ere elkarteak antolaturiko, eta Udalak diruz lagunduriko, kirol proba abenduaren 1-an, arratsalde, egingo da. Ondorioz, 2023.ko urtarrilaren lehen hamabostaldian zurituko du dirulaguntza elkarteak.

2	Aloñako Igoera Kultur eta Aisiladirako Elkartea	Aloña Igoera XVII
---	-------------------------------------------------	-------------------

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 31.182,47 €
- Sarrerak: 30.137,95 €
- Likidazioa: -1044.52 €

Ondorioz, Udal Kirol Batzordeak proposatzen du elkarte antolatzaileari dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea, esleitutakoaren %40-a, alegia: 1000 €.

3	Herriko Pilota Txapelketa	Herriko Pilota Txapelketa
---	---------------------------	---------------------------

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 2.222,20 €
- Sarrerak: 390 €
- Likidazioa: -1.832,20 €

Ondorioz, Udal Kirol Batzordeak proposatzen du elkarte eskatzaileari dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea, esleitutakoaren %40-a, alegia: 578 €.

4	Herriko Futbol Txapelketa	Herriko Futbol Txapelketa
---	---------------------------	---------------------------

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 1954.€
- Sarrerak: 2567,60 €
- Likidazioa: 602,85 €

Batzordeak proposatzen du:

- Likidazioa positiboa izan dutenez, dirulaguntzaren bigarren zatia ez ordaintzea.
- Dirulaguntza onartzearekin bat ordaindutako lehen zatia; 402.6 €, itzultzeko errekerimenduaren tramitea abiaraztea.

5	Oñatiko Mendi Martxa	Oñatiko Mendi Martxa
----------	----------------------	----------------------

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 17.536,27.€
- Sarrerak: 15836 €
- Likidazioa: -1.700,27 €

Ondorioz, Udal Kirol Batzordeak proposatzen du elkarte eskatzaileari dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea, esleitutakoaren %40-a, alegia: 960 €.

6	Txantxiku Arkulariak	Gipuzkoako 3D Liga 2
7	Txantxiku Arkulariak	XIV. San Miguel Saria+Liga 3

Elkarte eskatzaileak bi kirol proben aurrekontu bateratua aurkeztu. Horrela bada, eskaeren aurrekontu bateratu, nahiz esleitutako bi dirulaguntzen batuketaren arabera proposatu du Udal Kirol Batzordeak:

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 1,362.06 .€
- Sarrerak: 796.00€
- Likidazioa: -566,06 €

Ondorioz, Udal Kirol Batzordeak proposatzen du elkarte eskatzaileari dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea, esleitutakoaren %40-a, alegia: 268 €.

8	Udana Automobilismo Kirol Taldea	Errekalde - Goitiberak
----------	----------------------------------	------------------------

Aurrekontuaren zuriketa:

- Gastuak: 1,472,55.€
- Sarrerak: 1000€
- Likidazioa: -472,25 €

Batzordeak proposatzen du:

- Likidazioa positiboa izan dutenez, dirulaguntzaren bigarren zatia ez ordaintzea.
- Dirulaguntza onartzearekin bat ordaindutako lehen zatia; 7,45 €, itzultzeko errekerimenduaren tramitea abiaraztea.

Horrela bada, 2022. urteko dirulaguntzen ordainketa eta likidazioari dagokionez, Udal kirol batzordeak onartu du:

LEHENA

Proposatutako dirulaguntzak ordaintzea, eta likidazioa positiboa aurkeztu duten elkarte eta kirol taldeei, zehazturiko kopuruak Udalari itzultzeko errekerimenduaren tramitea abiaraztea.

BIGARRENA

Onuradun eta eskatzaileei akordioaren berri ematea.

Azkenik, onartutako dirulaguntzen gastua 2022. urteko Udal gastuen aurrekontuetako 1 0700.481.341.00.04 2022 (283) partidaren kontra joango da.”

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea dirulaguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

36-43 artikuluetan Diru-laguntzen itzultzea arautzen dute. 38. Artikuluak honakoa dio:

“1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, kobratzeko, Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

2. Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa diruaren legezko interesa izango da, ehuneko 25 gehituta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak beste interes bat ezarri ezean.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, kirol batzordearen proposamena ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Kirol batzordeak egindako proposamena eta onuradunen likidazioa onartzea.

Bigarrena.- Aipatutako gastua onartzea 2022ko aurrekontuko dagokion partida (1 0700.481.341.00.04 2022 (283) eta bere lotespen-mailaren kargura.

Hirugarrena.- Onuradunen %40ko diru-laguntza ordaintzea.

Laugarrena.-Diru-laguntzen itzulpen espedientea hastea kirol batzordeak proposaturiko onuradunei.

Bostgarrena.- Ordaindutako diru-laguntza itzultzeko eskatzea elkarte hauei:

- Udana Automobilismo Kirol Taldea.

- Herriko Futbol Txapelketa.

Dirua abenduak 31a baino lehen bueltatu behar dute kontu korrante hauetara:

KUTXABANK ES45 2095 5057 43 1060024766

LABORAL KUTXA ES05 3035 0005 36 005090003.

Seigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

Zortzigarrena.- Ebazpen honen iragarkia laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitarapen honek banakako jakinarazpena ordezkatzuko du; eta jakinarazpena egiazkotzat joko da eta bere lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Interesdunek Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Gaia aztertuta eta kontuhartzailearen ondorengo aldeko oniritziaren baldintzapean (32/2018 Foru Dekretuaren 2.3, 7.1 a eta 13 artikuluekin bat etorritz) Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU34765c89-d1d9-4c93-b8e3-c98d85c28266**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**